

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

R 16/2015 Ebazpena

14/2015 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 19an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak 2014ko otsailaren 11n hasitako prozeduran, Arbitraje Batzorde honen aurrean 14/2015 espedientezenbakiarekin eta Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela bideratutako eta 1. ERAKUNDEA erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiari formulatutako tributu-kontsultaren ebazpenean izandako desadostasuna dela eta.

I. AURREKARIAK

1.- Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendutako 2010eko apirilaren 22ko idazkiaren bidez (erregistroan hilaren 26an sartuta), 1. ERAKUNDEA erakundeak (IFZ: ----), hemendik aurrera «1. ERAKUNDEA» edo «erakundea» izango denak, kontsulta egin zuen, hurrengo datuetan oinarrituta:

- Erakundea Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietate bat da, eta egoitza soziala Bilbotik Madrilera aldatu zuen Akziodunen Batzar Orokorrak 2009ko abenduaren 17an hartutako erabakiaren bidez, zeina Bilboko notarioaren aurrean abenduaren 29an emandako eskrituran publiko egin

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

zuten; eskritura 2010eko otsailaren 3ean inskribatu zuten Madrilgo Merkataritza Erregistroan.

- Egoitza soziala aldatzeaz gain, erakundeak helbide fiskala ere aldatu zuen; hala, Zerga Administrazioko Estatu Agentzian altaren zentsu-aitorpena 2010eko martxoaren 1ean aurkeztu zuen, eta Bizkaiko Foru Ogasunean bajaren zentsu-aitorpena 2010eko martxoaren 3an.

Erakundeak BFari honako kontsulta hau egin zion: «Sozietateak egoitza ia 2009 osoan Bilbon izan zuenez, uste dugu urte horretako Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu beharko genukeela, baina, segurtasun handiagoaren mesederako, gure interpretazioa zuzena den baieztatzea eskertuko genuke».

Erakundeak berak, halere, hiru hilabete geroago hasierako interpretazio hori aldatu zuen, eta Arbitraje Batzorde honetan 2015eko uztailaren 28an aurkeztutako idazkian adierazi zuen ezen, 2009ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga aurkezteko epearen amaierara iritsita eta egindako kontsultaren erantzunik jaso ez zuenez, «Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena ZAEAREN aurrean aurkezteko erabakia» hartu zuela, «izan ere, egoitza soziala, fiskalarekin bat datorrena, sortzapenaren datan Madrilen zegoen jada»; halaber, 2009ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren aitorpen horrek emaitza gisa «itzultzeko zenbateko likidoa» zuela eta 2010eko uztailaren 16an aurkeztu ziotela Estatuko Ogasunari. Azkenik, erantsi dutenez, «ZAEAK zerga hori jaso eta aztertu ondoren, haren aldetik zegokion ordainketa jaso zuten 2011ko urtarrilaren 7an, aplikatu beharreko eredian (200 eredia) horretarako kontsignatutako sozietatearen banku-kontuan».

Erakundeak, 2010eko uztailaren 29ko idazkiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi zion aurreko urteko uztailaren 16an 2009. urteko ekitaldiari

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

zegokion Sozietateen gaineko Zerga aurkeztu zuela Estatuko Ogasunean, eta alegazioei idatzi horren kopia erantsi zien.

2.- Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoak (EZKO), 2010eko urriaren 25eko bilkuran, erakundeak egindako kontsultari eman beharreko erantzun-proposamena egin zuen; hala bada, lehenik eta behin, hainbat artikulutan xedatutakoa aipatu eta jakinarazi zuen (hauetan xedatutakoa zehazki: Kontzertu Ekonomikoaren 14., 15. eta 43. artikulua; Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 2. artikulua, eta, azkenik, abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sozietate Autonomoen Legeko testu bateginaren 6. artikulua, kontsulta egin zuenean indarrean zegoena), hori eginda, eta manu horiekin bat etorritik, hau xedatu zuen: «2009an, aurreko ekitaldian (2008an, alegia), 7 milioi euro baino gehiagoko eragiketa-bolumena izan ez duten zergadunek, zergaren sortzapenaren unean (zergaldiaren azken eguna) helbide fiskala duten lurraldeari dagokion zerga-administrazioan ordaindu behar dute Sozietateen gaineko Zerga, bertan indarrean dagoen araudia aplikatuta (...). Ondorioz, lurralde bateko edo beste bateko araudiaren aplikazioa eta Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna helbide fiskalaren arabera zehazten direnean, eta zergaldiaren barruan hori aldatzen bada, zerga-sortzapenaren egunean helbide fiskala zer lurraldetan duen, lurralde horretako administrazioaren aurrean aurkeztu beharko du zergaren autolikidazioa zergadunak, betiere horretan indarrean dagoen araudia betez».

Hori horrela, EZKOren iritziz «planteatutakoaren tankerako kasu batean Sozietatearen gaineko Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna eta zergadunak bete beharreko araudia zehazteko orduan, (...) Euskadirekin egindako Kontzertu Ekonomikoaren 14., 15. eta 43. artikuluetan jasotako arauak aplikatu behar dituzte (...), eta horietan ez dago klausularik helbide fiskalaren aldaketak, ukitutako tributu-administrazioei jakinarazi arte,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

eraginkortasunik ez duela adierazten duenik. Hori guztia –gehitzen du– planteatutakoaren antzeko kasu batean, helbide fiskalaren aldaketa jakinarazteko, erabili beharreko zentsu-aitorpena (036 eredu) epearen barruan aurkezteko obligazioa ez betetzeagatik bidezkoak izan litezkeen zehapenak alde batera utzi gabe (...)». Eta erakundeak aurreko urtean, 2008an, izandako eragiketa-bolumena 7 milioi euro baino handiagoa ez zela izan oinarri hartuta, EZKOk hau ondorioztatzen du: kontsulta egin duen erakundeak «ez du 2009ko ekitaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean aurkeztu behar, baldin eta, zerga sortzeko egunean, lurralde erkidean bazuen jada helbide fiskala, Kontzertuko 43. artikulua horretaz emandako definizioaren arabera betiere (...)».

3.- 2010eko abenduaren 23an idatzitako eta 2011ko urtarrilaren 10ean erregistratutako idazkiaren bidez, eta Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan aurreikusitako helburuetarako, Autonomia Erkidegoekiko eta Tokiko Erakundeekiko Finantza Koordinazioaren Zuzendaritza Orokorrek Estatuko Administrazioak EZKOk prestatutako erantzun-proposamenari egindako oharra bidali zizkion Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioko zuzendariari.

ZAEAREN iritziz, egia bada ere Kontzertu Ekonomikoko 14., 15. eta 43. artikuluetako klausula bakar batek ez duela xedatzen helbide fiskalaren aldaketak ez duela eraginkortasunik ukitutako zerga-administrazioei jakinarazi arte, «halakorik berriaz jasota egon badago Zergei buruzko Lege Orokorren 48.3 artikuluan, baita BIZKAIKO Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 47.3 artikuluan ere [47.4 esan behar du], eta jakinaraztea nahitaezkoa dela berriaz jasotzen du, orobat, Kontzertuak». Eta Estatuko Administrazio Orokorrek aurretik egindako kontsultetan izandako jarrera berresten du; horren arabera, «helbide-aldaketak, ZAEAREN aurrean, hari jakinarazten zaionetik aurrera sortzen ditu ondoreak». Eta gehitu du, halaber, «helbide-aldaketa hori aurreko momentu batera eraman ahal izateko, baldintzok bete beharra dagoela:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

- Behartuta dagoenak berak helbide fiskalaren aldaketa lehenago izan zela egiaztatzen duten frogak aurkeztea, edota
- Ofiziozko helbide-aldaketako prozedura baten ondorioz, aldaketa behartuta dagoenak aurkeztutako 036 ereduan hasieran esandako unean baino lehen gertatu dela egiaztatzea».

Estatuko Administrazioak gehitzen duenez, gainera, «kontsultatutako kasuan helbide-aldaketaren ondoreak [2010eko] martxoaren 1ean gertatuko ziren Estatuko Zerga Administrazioarentzat eta martxoaren 3an BIZKAIKO Foru Aldundiarentzat»; eta, amaitzeko, hauxe dio: «bi data horiek 2009ko abenduaren 31ren ostekoak direnez (egun horretan sortu zen Sozietateen gaineko Zerga), 2009ko Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna, baldin eta kontsulta egin duenak aurreko ekitaldian izandako eragiketa-bolumena 7 milioi eurotik beherakoa bada, BIZKAIKO Foru Aldundia da».

4.- Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoak, 2011ko urtarrilaren 25ean, aztertu egin zituen Estatuko Administrazioak erantzuteko proposamenari egindako oharra, eta desadostasuna agertu zuen «helbide fiskalaren aldaketari, bi administrazioetarako jakinarazpenari eta haren ondoreei buruz» egindako adierazpenekin; halaber, proposamenean adierazitako argudioak berretsita, amaitzeko adierazi zuen «betebehar formal bat, helbide fiskalaren aldaketa jakinaraztea adibidez, ez betetzeak zehatzeko ondorioak eragin litzakeela, baina ezin duela inola ere ekarri Kontzertu Ekonomikoan aurreikusitako eskumen-banaketa aldatzea».

5.- 2014ko urtarrilaren 16ko saioan, Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan eta Arbitraje Batzordearen Araudiaren (EIABA) 14. artikuluan xedatutakoaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

arabera, Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak 1. ERAKUNDEAK formulatutako kontsultaren igorpena adostu zuen, besteak beste, bere ebazpenaren inguruan adostasunik lortu ez izanagatik. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeari eta Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari eskatu zitzaien helarazitako kontsulta bakoitzaren espedientean agertzen den dokumentazioa Arbitraje Batzordeari bidaltzea.

6.- Enkargu hori betez, 2014ko otsailaren 11n prestatutako eta otsailaren 19an sarrera-erregistroa duen idazkiaren bidez, erakundeak egindako kontsulta eta espedientean dagoen dokumentazioa bidaltzen zaizkio Arbitraje Batzordeari, «izapidetzeari buruzko Araudiaren 16. artikuluan xedatutakoaren esparruan eta zenbait kontsulta egin zirenetik igarotako denbora kontuan izanda, Administrazio interesdunei hasiera batean espedientean agertzen den dokumentazioa eta kontsultaren ebazpen-prozeduran aldarrikatutako irizpideak eta argudioak osatzea ahalbidetzea eskatuta».

7.- 2015eko ekainaren 19ko bilkuran, Arbitraje Batzordeak aipatutako gatazkaren izapideak onartzea erabaki zuen, hori Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari jakinarazita, bai eta kontsulta egin duen erakundeari zein gatazka duten administrazioei ere, Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duen Errege Dekretuaren (abenduarien 28ko 1760/2007) 16. artikulua 4. zenbakiaren arabera, Administrazio interesdunek komenigarriki deritzoten alegazioak formulatu ditzaten, hilabeteko epean.

8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), Arau Garapen eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren 2015eko uztailaren 10eko idazkiaren bidez (erregistroan hilaren 13an sartuta), Arbitraje Batzordeari eskatu zion ebazpena emateko ekainaren 19ko haren aurreko R 8/2015 eta 12/2015 ebazpenetan (33/2014 eta 30/2014 espedienteak) ezarritako irizpide bera bilduta. Irizpide

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

hori, izan ere, bat dator EZKOk Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean prestatutako erantzun-proposamenarekin, eta GFA ere bat dator guztiz irizpide horrekin.

9.- Bizkaiko Foru Aldundia gatazka honetan Administrazio interesdun bezala agertuta, haren Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak 2015eko uztailaren 15ean prestatutako eta biharamunean (hilaren 16an) erregistratutako idazkiaren bidez, EZKOk 2010eko maiatzaren 13ko bilkuran erabakitako kontsiderazioak guztiz berrestez gain [2010eko urriaren 25 esan behar du], beste argudio osagarri batzuk aurkezten ditu, Estatuko Administrazioaren tesiarekiko bere aurkakotasuna oinarritzeko. Era berean, Arbitraje Batzordeak gatazka hori konpontzeko eskatzen du, «zergadunen helbide fiskalaren aldaketek helbide fiskalaren kontzeptu normatiboak oinarri dituen elementu faktikoen aldaketak gertatzen diren unetik dituztela euren eraginak ezarrita, horiek Zerga Administrazioei jakinaraztea beharrezkoa izan gabe».

10.- 1. ERAKUNDEAK 2015eko uztailaren 22ko idazkia bidali zion Arbitraje Batzordeari (erregistroan hilaren 28an sartuta), eta horren bidez adierazi zuen 2009ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga aurkezteko epearen amaiera iritsita, eta egindako kontsultaren erantzunik jaso ez zuenez, 2010eko uztailaren 16an aitortpena ZAEAREN aurrean aurkeztu zuela; halaber, «helbide soziala, fiskalarekin bat datorrena, sortzapenaren egunean Madrilen zegoela jada» jo zuten, eta horren berri eman zioten BFARI 2010eko uztailaren 29ko idazkiaren bidez. Horrez gain, adierazi ere egin zuen «2009ko ekitaldiari zegokion Sozietateen gaineko Zergak amaierako emaitza gisa itzultzeko zenbateko likidoa» zuela, eta, ondorioz, ZAEAK 2011ko urtarrilaren 7an ordaindu ziola. Adierazi zuen, halaber, «Estatuko Ogasunak itzulketa eginda, idazki honen xede den auzia gaindituztat jo zutela eta, gertaera eragiletik 5 urte baino gehiago igarota, (...) ez dela egokia alegaziorik egitea (...), are gehiago

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

planteatutako kasuak espedientera gehitu beharreko daturik ez badu». Idazkia amaitzeko, erakundeak espero du Arbitraje Batzordeak «espedientea behar bezala ebatzi ahal izatea, etorkizunean era horretako kasuetan dauden zergadunen egoera argitzearren (...)».

11.- Estatuko Administrazioak, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko idazkiaren bidez (erregistroan abuztuaren 7an sartu zen), alegazioak aurkeztu zituen. Horien bidez, gatazkan azaldutako auzia identifikatzea oinarri hartuta, helbide-aldaketa egintzat noiztik jotzen den zehaztean datzala hori zehazki, horrek zehazten baitu, era berean, 2009. urteko ekitaldiaren Sozietateen gaineko Zergaren salbuespenerako eskumen-aldaketa. Hori horrela, Estatuko Administrazioak dio ezen, Kontzertu Ekonomikoaren 15. artikulua (aipatutako zergaren ordainarazpenerako eskumen-banaketa ezartzen du) eta 43.Bost artikulua ez ezik [horrek hau xedatzen du: «Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek (...) zerga-egoitzaren aldaketak bi administrazioei jakinarazi behar dizkiete, baldin eta egoitzaren aldaketak honako zerga ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar»], «kontsulta egin duenak planteatutako kasuan aplikatu beharrekoak ere badira Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 48.3 artikulua, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua [tributuak kudeatzeko eta ikuskatzeko jarduketan eta prozeduren erregelamendu orokorra onartzen duena], eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 47.3 artikulua».

Horretatik abiatuta, Estatuko Administrazioak dio «“helbide fiskala”ren kontzeptua Kontzertuan adierazitako konexio-puntuaren ondoretarako, Zergei buruzko Lege Orokorraren 48. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 47. artikuluan zehaztutakoa» dela. Bi manu horietan berariaz ezartzen da «helbide fiskalaren aldaketa ez dela eraginkorra izango, harik eta nahasita dauden Zerga Administrazioei hori

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

jakinarazten dieten arte». Gehitzen du, orobat, «manu horiek interpretatzeko eta, bereziki, helbide fiskala jakinarazteko baldintza aintzat hartzeko, Kode Zibilaren 3.1 artikulua interpretazio-irizpideetara igorri beharra dagoela».

Adierazpen horien arabera, Estatuko Administrazioak, antza denez, hau onartzen du: «helbide fiskala Estatuko eta Foru Ogasunaren arteko eskumena mugatzeko irizpide gisa, Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean ezarritakoa betez (...), Kontzertuan adierazten diren baldintza faktikoetan oinarritutako egitezko elementu bat da», baina «baldintza horiek *prius gaitzaile* modura betetzea alde batera utzita, gainerako arauak helbide fiskalari dagokionez xedatutakoa ere hartu behar da kontuan, zehazki helbide fiskala jakinarazteko betebeharrari dagokionez, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 48.3 artikuluan (aurrerantzean ZLO) eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 47.3 artikuluan aipatuta». Hori guztia oinarri hartuta, Estatuko Administrazioaren argudioen arabera, helbide fiskala arautzeari begira elementu faktikoa erabakigarria dela onartu arren, hori «eskumena duen zerga-administrazioari jakinarazi behar zaio dagokion zerga-aitorpenaren bidez». Horrez gain, hau ere gehitzen du: «eskakizun hori bat dator helbide fiskalaren singularitatearen atributuarekin (...); helbide fiskala bakarra da, ez da anizkuna, hortaz, jakinarazpen fiskala [sic] taxutzen da harreman juridiko-tributarioaren garapena zergapekoarekiko segurtasun osoz egiten dela bermatzeko eskakizun formal gisa ez ezik (esaterako, jakinarazpenak behar bezala egiten direla bermatzeko), bai eta zergapekoaren helbide fiskala bat eta bakarra dela ziurtatzeko funtsezko elementu gisa ere; izan ere, haren singularitatearen mende daude zerga-administrazioaren eta zergapekoaren arteko harreman hutsa gainditzen duten harreman juridiko jakin batzuk, batzuetan «helbide fiskala»ren kontzeptuaren gainean eraikitzen baita zerga-administrazio baten eskumenak beste administrazio batekiko dituen aldean mugatzeko irizpidea;

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

aztergai dugun honetan Estatuko Zerga Administrazioaren eta Bizkaiko Foru Lurraldeko Zerga Administrazioaren artean, hain zuzen».

Eta tributu-aitorpenetan berez adierazitako datuen eta egitatezko elementuen ziurtasunaren lege-presuntzioa oinarri hartuta (ZLOren 108.4 artikulua eta Bizkaiko ZFAOren 106.4 artikulua), ondorioztatzen du «“helbide fiskal” faktikoa dagokion aitoren bidez hura jakinarazten dutenean baino ez dela juridiko bihurtzen, eta une horretatik aurrera ziurtasun-presuntzioa egongo da, aurkako frogaren bidez zuzendu ezean»; horrela bada, «aitoren ziurtasun-presuntzioa suntsituz baino ezin da indargabetu indarrean dagoen helbide fiskalaren aitoren eraginkortasuna (...). Ez da (...) helbide fiskala egitate-bidez aldatu behar horretarako ezarritako nahitaezko lege-mekanismoa alde batera utzita».

12.- Prozedura abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Araudian eta, zehazki, bere 14. artikuluen preskripzioetan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje-prozedura hau egoki ebatziko bada, espedientetik lortzen diren datu faktiko nagusiak hartu behar dira oinarri, honako hauek zehazki:

- 2009ko abenduaren 17a: Akziodunen Batzar Orokorrek erakundearen egoitza soziala Bilbotik Madrilera aldatzea erabaki du, eta publiko egin du abenduaren 29ko notario-eskritura baten bidez, Madrilgo Merkataritza Erregistroan 2010eko otsailaren 3an inskribatuta.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

- 2010eko martxoaren 01a: altaren zentsu-aitorpena Zerga Administrazioko Estatu Agentzian aurkeztu zuten, eta helbide fiskalaren aldaketa jakinarazi.
- 2010eko martxoaren 03a: bajaren zentsu-aitorpena Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu zuten.
- 2010eko martxoaren 24a: ZAEAko Madrilgo Ordezkeri Bereziak sinatutako identifikazio fiskaleko zenbakia egiaztatzen duen txartela erakundeari jakinarazi zioten.
- 2010eko apirilaren 26a: erakundeak apirilaren 22ko idazkiaren bidez egindako kontsulta Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistroan sartu zen.
- 2010eko uztailaren 16a: erakundeak ZAEAREN aurrean 2009ko Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu zuen; itzultzeko zenbateko likidoa zuen emaitza gisa.
- 2010eko uztailaren 29a: erakundeak berak BFARI jakinarazi zion 2009ko Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa ZAEAREN aurrean aurkeztu zuela.
- 2010eko urriaren 25a: EZKOk kontsultari erantzuteko proposamena egin zuen, eta ondorioztatu zuen erakundeak ez zuela 2009ko Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean aurkeztu behar, zerga sortzeko egunean haren helbide fiskala lurralde erkidean baitzegoen.
- 2010eko abenduaren 23a: Estatuko Administrazioak Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioko Zuzendariari igorri zizkion

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

EZKOren erantzun-proposamenari egindako oharrak; hala, ondorioztatu zuen kontsultatutako kasuan helbide fiskalaren aldaketaren ondoreak 2010eko martxoaren 1ean gertatuko zirela Estatuko Zerga Administrazioarentzat eta martxoaren 3an Bizkaiko Foru Aldundiarentzat. Bi datak 2009ko abenduaren 31ren ostekoak dira, eta orduan sortu zen Sozietateen gaineko Zerga; horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundia izango litzakete eskuduna 2009ko Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenerako, betiere aurreko ekitaldiaren eragiketabolumena 7 milioi eurokoa baino txikiagoa bada.

- 2011ko urtarrilaren 07a: ZAEAk 2009ko Sozietateen gaineko Zergaren aitopenen ondoriozko zenbateko likidoa itzuli zuen, erakundeak hartarako hautatutako banku-kontura ordainketa egokia eginez.
- 2011ko martxoaren 25a: Estatuko Administrazioak kontsultari erantzuteko EZKOren proposamenari egindako oharrekin ez zegoela ados adierazi zuen EZKOk, eta argudioak berretsi zituen.
- 2014ko urtarrilaren 16a: Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak Arbitraje Batzordera 1. ERAKUNDEAK egindako kontsulta, besteak beste, igortzea erabaki zuen, haren ebazpenari buruzko adostasunik lortu ez baitzen; hala bada, erregistroan 2014ko otsailaren 19an sartu zen otsailaren 11ko idazkia, kontsultaren idazkia eta espedientean jasotako dokumentazioa barne hartuta.

2.- Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak gatazka sustatu du, haren barruan ez baitago adostasunik Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziaren artean 1. ERAKUNDEAK aurkeztutako kontsultari (bi zerga-administrazioetatik 2009. urteko ekitaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenerako eskuduna zein den) eman

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

beharreko erantzunari dagokionez; izan ere, aipaturako erakundeak Akziodunen Batzar Orokorrean, 2009ko abenduaren 17koan, helbide soziala Bilbotik Madrilera aldatzea onartu zuen, eta erabakia notario-eskritura publiko egin zuen hilaren 29an, baina 2010eko martxoaren 1era arte ez zion helbide fiskalaren aldaketa jakinarazi Zerga Agentziari altaren zentsu-aitorpenaren bidez, eta 2010eko martxoaren 3ra arte Bizkaiko Foru Aldundiari bajaren zentsu-aitorpenaren bidez.

Bizkaiko Foru Aldundiak EZKOren erantzun-proposamena onartu du; haren arabera, betiere 1. ERAKUNDEAK aurreko ekitaldian (2008) izandako eragiketa-bolumena gehienez 7 milioi eurokoa bazen, erakundeak ez zuen Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu behar 2009ko Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa, baldin eta, hura sortzeko egunean (2009ko abenduaren 31), helbide fiskala lurralde erkidean bazuen jada. Eta baldintza hori betetzen da aztergai dugun kasuan, erakundeak helbide fiskala Bilbotik Madrilera 2009ko abenduan aldatu baitzuen; horrenbestez, EZKOren iritziz helbide fiskalaren aldaketa dagokien Zerga Administrazioei jakinarazteko egunak ez du eraginik Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna, ezta aplikatu beharreko araudia ere, zehaztean, izan ere, Kontzertu Ekonomikoko 14., 15. eta 43. artikuluetan –horiek izanik kasu honetan aplikatu beharrekoak–, «klausula bakar batek ere ez dio helbide fiskalaren aldaketak ez duela eraginkortasunik, harik eta ukitutako zerga-administrazioei jakinarazten dioten arte».

Estatuko Administrazioaren iritziz, aitzitik, helbide fiskalaren aldaketak ondorioak ditu administrazioari jakinarazten zaionetik aurrera, izan ere, helbide fiskalaren aldaketak eraginkortasunik ez duela xedatzen duen klausula hori Kontzertu Ekonomikoko 14., 15. eta 43. artikuluetan ezarrita ez badago ere, egon badago ZLOren 48.3 artikuluan eta Bizkaiko ZFAOren 47.3 artikuluan [47.4 esan beharra dago], eta Kontzertuan berariaz jasota dago helbide

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

fiskalaren aldaketa nahitaez jakinarazi beharra dagoela. Eta helbide fiskalaren aldaketaren interesa duten bi administrazioei jakinarazteko datak (2010eko martxoaren 1 eta 3) 2009ko abenduaren 31ren ostekoak direnez (egun horretan sortu zen Sozietateen gaineko Zerga), «2009ko Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna, baldin eta kontsulta egin duenak aurreko ekitaldian izandako eragiketa-bolumena 7 milioi eurotik beherakoa bada, BIZKAIKO Foru Aldundia da».

3.- Aurretik azaldutako gertaerak ikusita, eman lezake [1. ERAKUNDEAK eman beharko zuen erakuntzari buruz bi administrazioen artean sortutako desadostasunarekin batera] aztergai dugun kasuan agerian dagoena eskumenen nolabaiteko gatazka negatibo bat dela, non aurrez aurre dagoen administrazio bakoitzak, kontsultaren xede den gaian, erakundearen 2009. urteko ekitaldiko Sozietatearen gaineko Zergaren ordainarazpenerako gai beste administrazioa jotzen duen.

Nolanahi ere, espedientera EZKOK eta administrazio interesdunek zein kontsulta egin duen erakundeak berak aurkeztutako datuak aztertuta, hau egiaztatu dugu:

Lehenengoa.- Gatazka eragin zuen tributu-kontsulta 2009. urteko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkezteko ezarritako epea amaitu aurretik egin zen (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 85.2 artikulua eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 88.2 artikulua), baina idazkian ez zituzten adierazi «kasuaren aurrekari eta baldintza erabakigarriak» (Bizkaiko ZFAOren 85.3.b) artikulua), eta hori ezagutzea beharrezkoa da agertutako gaiari behar bezalako erantzuna emateko; hau da: 2009. urteko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena zer administrazioen aurrean aurkeztu behar den; horri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

erantzuteko, Kontzertu Ekonomikoko 14., 15. eta 43. artikulua ikusita, jakin beharko genuke kontsulta egin duen erakundeak helbide fiskala zer lurraldetan zuen zerga sortzeko unean, baita aurreko ekitaldian zer eragiketa-bolumen zuen ere. Izan ere, gogora ekarri behar dugu, Auzitegi Gorenak berretsitako Arbitraje Batzorde honen dotrinaren arabera, pertsona juridikoen helbide fiskala zehazteko orduan, ez du axola zer helbide soziala duten, haren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza egiaz non dagoen kokatuta baizik, horixe baita irizpide erabakigarria. Azken hori, halaber, kontzeptu juridiko mugagabea da, eta zehazteko kasuaren baldintza guztiak berriro hartu behar dira kontuan.

Bigarrena.- Aurrekoarekin batera [eta kontsulta horri planteatu zuten termino laburretan erantzun zaion edo ez alde batera utzita], baliozko aktibaziorako nahitaezkoa den premisarik ere ez dago arbitraje-prozedura honetan: Zerga Administrazioen artean egiazko eztabaidarik oraindik egotea Arbitraje Batzorde honek esku hartu dezan.

Espedientea aztertuta, izan ere, pentsatzekoa da gatazka-prozedura hau ez zela hasiko, baldin eta, Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak, 1. ERAKUNDEAK aurkeztutako kontsulta Arbitraje Batzordeari 2014ko otsailaren 11n igorri aurretik, ezagutu balu, batetik, hori egin eta hiru hilabete ingururen buruan, erakundeak 2010eko uztailaren 16an erabaki zuela 2009ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztea ez BFARI, ZAEARI baizik (haren emaitza zenbateko likidoa) eta, bestetik, jakin izan balu estatuko Ogasunak 2011ko urtarrilaren 7an zegokion kuota itzuli zuela erakundeak horretarako hautatutako banku-kontuan zegokion ordainketa eginez.

Antzaenez, agerikoa da ezen, egun batzuk lehenago, 2010eko abenduaren 23an, Estatuko Administrazioak EZKOREN erantzun-proposamenaren aurka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

egin bazuen ere, ohar-idazkian 1. ERAKUNDEAren 2009ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpenerako eskuduna Bizkaiko Foru Aldundia zela berretsita, egia ere badela haren aurreko jokabideak (2010eko uztailaren 16an aipaturako kontzeptuaren eta zergaldiaren gainean erakundeak egindako autolikidazioa eragozpenik gabe onartuta) zein, batez ere, ondoren izandakoak (2011ko urtarrilaren 7an haren ondoriozko tributu-kuota negatiboaren kuota itzulita) erakusten zuela, argi eta garbi, Estatuko Administrazioa ados dagoela Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenarekin eta, horrenbestez, ez dagoela inolako desadostasunik kontsultaren xede den kasuaren gainean. Hala, harrez geroztik, desadostasun horri modu artifizialean eta abstraktuan eutsi diote, ez baitu loturarik egiazko inolako kasurekin. Hori dela eta, erakundea bera harrituta dago gatazkaren inguruan dagoen liskarragatik, eta, 2015eko uztailaren 22ko idatzian adierazi du «kontsulta eragin zuen gertaeratik 5 urte baino gehiago igaro ondoren, (...) Estatuko Ogasunak itzulketa egindakoa, idatzi honen xede zen gaina gaindituta zegoela ulertu genuen (...)».

4.- Bere horretan dirau, jakina, BFAk eta Estatuko Administrazioak Kontzertu Ekonomikoaren interpretazioari buruz duten desadostasunak eta, zehazki, zerga hori eskatzeko eskumenean aldaketak eragiten dituzten helbide fiskalaren aldaketak bi administrazioei formalki jakinaraztearen ondoreei dagokienez. Baina, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Estatuko Administrazioak 2015eko uztailaren 15ean eta uztailaren 31n, hurrenez hurren, desadostasun horri eutsi dioten moduan, duela urte batzuk artifizial eta abstraktu bilakatu da, kontsultaren ustezko xedearekin lotura oro galduta eta, horregatik beragatik, desadostasuna behin betiko gaindituta eta ebatzita ulertu beharra zegoen, aurkeztu zuen erakundeak berak arrazoiz ulertzen duen moduan, «Estatuko Ogasunak itzulketa egindakoa (...)», hau da, 2011ko urtarrilaren 7an.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

Ukitutako administrazio batek zein besteak saihestu badute ere, egoera horrek gaitasunik gabe uzten gaitu erabat administrazioen arteko desadostasuna aztertzeko eta argitzeko, desadostasuna eragin zuen kasu zehatza, izan ere, errealitateak agerian uzten duen moduan, duela urte batzuk konpondu zen, alderdi guztiak horrekin ados egonik; beraz, orain agertutako desadostasuna, harrez geroztik, desagertu zen. Horrenbestez, desadostasuna ebazteak, kontsulta egin duen erakundeak adierazten duen moduan, besterik gabe, ondorio bakartzat, «etorkizunean era horretako kasuetan suertatzen diren zergadunen egoera argitzea» izango zuen. Eginkizun hori, halere, ez dagokigu inola ere guri, izan ere, «Arbitraje Batzordearen eginkizunak arautzen dituzten arauetatik ondorioztatzen da eskumenen barruan ez dagoela Kontzertu Ekonomikoaren interpretazioaren arloko gai abstraktuak ebaztea» (R1/2013 ebazpena, urtarrilaren 25ekoa, 12/2010 espedientea, Bigarren Oinarria).

Kontzertuan jasotako konexio-puntuen aplikazioari buruz egiazko desadostasunik ez dagoenez (KEren 64.b) artikulua eta EIABAREN 14. artikulua) ebatzi beharreko kasu zehatz batekin lotuta, gatazka hau oker planteatu zen, eta baztertu egin behar dugu orain.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

- 1.- Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeak sustatutako gatazka baztertzea 1. ERAKUNDEAK egindako kontsultarekin lotuta.
- 2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.
- 3.- Hitzarmen hau Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari, prozedura honetan agertutako Administrazioei (Estatuko Administrazioa,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
14/2015	R16/2015	2015-10-19	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuko Administrazioa</i>	<i>SZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. Gatazka ez onartzea</i>

Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia) eta erakunde interesdunari jakinaraztea.